



*Euskal Autonomia Erkidegoko Parke Naturalen sarea osatu asmoz, Jaurlearitzak izendatuko duen hurrengo ingurune natural babestua, Aizkorriko mendikatea eta bere inguruko lurraldeek osaturikoa izango da. Euskal mendizale askoren harrobi izan diren inguru hauek, balio naturalistiko interesgarriak dituzte ezkutuan gordeak eta, beraz, berauek babestea premiazkoztat jo da.*

# Aizkorri

## mendizale eta artzainen parke naturala

Aitor Bengoa Ansa\*

**A**ski ezaguna da Aizkorriko mendikatea Gipuzkoako hegoaldean dagoela, Nafarroa eta Arabarekin muga eginez.

Aski ezagunak dira era berean, batez ere mendizaleen artean, Arantzazu, Urbia, San Adrian, Aizkorri, Aketegi, Aratz eta ingurueta guneak.

Parke izendatzea burutzeko dagoenez, ezin esan zehatz-mehatz nondik norako lurak barne hartuko dituen ingurune babestuak, baina ez da mugatuko Aizkorriko mendilerroa soilik. Izan ere, ingurueta lurralde, paisaje eta mendi-tontor adierazgarrienak barne hartuko ditu. Esaterako, Gipuzkoa eta Arabako lurraldeak hartuz, 20.000 ha inguruko azalera ei du. Izan ere, Arlaban eta Otzaurteko lepoen arteko lurraldeak barne hartuko baititu. Gipuzkoako aldean honako udalerrak izango dira parkearen baitan; Eskoria-tza, Aretxabaleta, Leintz-Gatzaga, Oñati, Legazpi, Zerain eta Zegama. Arabakoetatik berriz, Asparren eta Donemiliaga. Hauetaz gain, Gipuzkoa eta Arabako Partzuergoko lursailak ere Parkearen baitan izango dira.

Jende askoren ustetan EAEko mendi-tontorrik garaiena Aizkorri bada ere, berez, tontorrik altuenak, Aitxuri (1.549 m) eta Aketegi (1.548 m) dira, eta ez Aizkorri (1.524 m). Tontor

hauek guztiak Aizkorri-Aloña mendilerroan ditugu, eta aski ezagunak dira. Hala ere, ingurueta badira, hain ezagunak ez diren eta aurrekoak bezain ederrak diren mendilerroak, hala nola Elgea eta Urkillako mendilerroetan dagoen tontor ugari.

Azalera handiko lurraldea izanik, paisaje eta ekosistema oso heterogeneoak topatuko ditugu ingurune babestu honetan, bakoitzak bere landaretza eta fauna bereizgarriak izango dituelarik. Oro har, eta zertzelada labur baten bidez azaltzeko, erreka eta ingurune urtarrei loturiko ekosistema abera-

Ezin esan zehatz-mehatz nondik norako lurak barne hartuko dituen ingurune babestuak, baina ingurueta lurralde, paisaje eta mendi-tontor (argazkiko Aratz, esaterako) adierazgarrienak barne hartuko diitu.



J. Larranaga



## Arantzazu-Urkillako mendikatea- -Zabalaitz-Urbia-Arantzazu

Lerro hauen bidez proposatuko dugun ibilbide honek, Aizkorriko mendikatearen parean, paralelo, dagoen mendi-lerro ezezagunagora eramango gaitu, Urkillako mendikatera hain justu. Mendikate motz hau Elgeako mendilerroaren luzapentzat har dezakegu. Hemendik Urbiako zelaiguneetara erraz hurbilduko gara, ondoren, Urbiatik Arantzazura jaisten den bide ezagunetik itzuliz. Lau ordutan erraz egiten den ibilbide eder honetan, oso paisaje ezberdinetatik igarotzeko aukera izango dugu.

Ostera, **Arantzazuko aparkalekuan** hasiko dugu. Hemen, erreka zurorantz jaisten diren eskailera estu batzuk aurkituko ditugu. Berauetan behera abiatzen bagara oso denbora gutxian metro asko jaitziko gara, malda handia baita. Aldapa handienak saihesteko bidea ezker-eskuin biratzen da etengabe. Urkullu eta Begiolatza errekek batzen diren gunera iritsiko gara, han dagoen zubia zeharkatu eta ezkerretara dagoen bidea hartuko dugu, Begiolatza errekaaren parean gora eginez. Hasieran, bi hormatzarren artean egingo dugu bidea. Eskuinera Aitzabal izango dugu, eta ezkerrean berriz, Bellostegi. Beste zubi bat igaro ondoren bailara txiki hau zabaldu egiten dela ikusiko dugu, eta pare-parean Erbizaskun-go tontorra ikusi ahal izango dugu.

Errekatxo bat gurutzatu eta gorantz jo ondoren, mendi-pista baterantz irtengo gara, hurrengo bidegurutzean eskuinerantz hartuz.

Hemendik **Arrionako lepora** aterako gara, Aizkorri eta Urkillako mendikateen mugara hain justu. Gune honetan PR arrastoak topatuko ditugu, eta eskuinerantz jarraituko diegu. Orain artean aldamenean izan ditugun pinuak alde batera utzi eta pagadi eder batean murgilduko gara. Trango-ko tontorraren ingurutik igaro ostean, **Zurkutz-ko lepora** iritsiko gara. Gune honetan, bi paisaje oso desberdin ikusteko aukera izango dugu: iparraldera, Urkillako pagadiak izango ditugu aurrez aurre, eta hegoaldera Arabako paisaje lau eta lehorragoa ikusiko dugu.

Mendebaldera joko dugu, bide-seinaleak bistatik galdu gabe eta txilar artean gora eta behera ibiliko gara **Napar basoko puntara** iritsi arte. Bideari jarraiki, hurrengo tontorra




**Oburukoa** izango dugu, ondoren altitudea apur bat galdu eta **Burdinkutzeko** lepora iritsiko gara. Eskuinera, Petrinitzko tontorra utzi eta larre batzuetara irtengo gara, hemendik gertu **Ollantzuko txabolekin** egingo dugu topo. Berau izan daiteke atsedenditxo bat hartzeko toki aproposa.

Hemendik eta aldapa bizia igo ostean, tarteka harriartearen ingoz, **Zabalaitzko** tontorrera iritsiko gara. Tarte hau bidea gidatzen duten arrastoz beteta dago, bertan, hain ugari diren laino-egunetan ez galtzearren. Zabalaitzko tontoretik, Urbiako larre zabalak ikuspegi ezinhobeia izango dugu eta eguraldi garbiarekin, Aizkorriko tontorrak ere aurrez aurre agurtzeko moduan izango gara.

Ikuspegiak gozatu ondoren, beherantz joko dugu, Zabalaitzko iturriarekin topo egin arte. Aurreraxeago, Urbiako ostatutik lizar artean datorren bidearekin egingo dugu topo **Elorrolako lepoan**. Lepo honetan, mugarriak eta bide-seinale ezberdinak ageri dira.

Gune honetatik Arantzazura doan bidea, aski ezaguna da eta jende asko ibiltzen da bertan, horren adierazle bidearen egoera da. Izan ere, bidezidorra oso erabilia dago eta zuhaitzen sustraiak biluzik ageri dira nonahi. Pagadian zehar jaitziko gara bidezidor horretatik, iturrira iritsi arte, bertan alertzez eraturiko baso txiki batean bide zabalagoa hasten baita eta honek berriro Arantzazura eramango gaitu galerarik gabe. □

J. Larranaga



tsak topatuko ditugu alde batetik. Bestetik, baso-komunitate interesgarriak ikus daitezke ingurune hauetan, eta azkenik, mendi-tontor altuetako ekosistema bereziak izango ditugu. Landaretzari dagokionez, Legazpiko Barrendiola inguruan dauden hariztiak azpimarratu daitezke alde batetik, askoz ugariagoak diren pagadi azidofioloak ahaztu gabe.


Parke honetako baso, larre eta mendietan bizi diren animalien zerrenda ere amaigabea da, baina ezer azpimarratzekotan, inguru hauetan kumatzen ari diren sai-arreak, sai-zuriak, aztoreak eta belatzak aipa daitezke. Azken urte hauetan arrano beltza ere inguratu da lurralde hauetara, baina oraindik ezin jakin bertan kumatzen ari den ala ez. Ugaztunei dagokionez, leporiak, kataginetak, basakatuak, orkatzak eta basurdeak azpimarra daitezke, parkeko biztanle direlako.

Argi dago ingurune honetako balio naturalistikoak oparoa dela eta berau ezagutzeko interesa duenak izango du, lerro hauetatik at, gaian sakontzeko aukera; parke natural guztietan gertatu ohi denez, eskura izango baitira etorkizunean interpretazio- eta azalpen-zentroak.

Nolanahi ere, parke honetan badira, alde naturalistikoek gain, alde batera utzi ez daitezkeen elementuak. Esate baterako, ingurune hauek eskaintzen dituzten aukera kulturalak garrantzitsuak dira, baserri-giroarekin lotuak batzuetan eta erlijio-kutsukoak beste zenbaitzuetan. Horren adibidetzat har dezakegu azken urte hauetan inguruko

hainbat herritan dagoen eskaintza turistikoa, hala nola Zeraingo museo eta ibilbide etnografiko gidatuak, Legazpiko burdin museoa, Leintz-Gatzagako gatzagak eta abar. Eskaintza hauek, kasu askotan, nekazaritza-turismoaren bultzadaren atzetik etorri dira. Hain berria ez bada ere, erlijio-kutsuko elementu kultural anitz aurkituko dugu, era berean, parke honetan. Arantzazuko kasua da agian nabarmenena eta urtero milaka lagun hurbiltzen dira bertara. Nolanahi ere, badira hainbat ermita eta gurutze parkean zehar barreiatuta.

Ezin ahaztu, bestetik, mendetan zehar iraun duen eta irauten duen lanbide zahar baten aztarna biziak: bai, artzaintzaz ari gara. Nor ez da hurbildu inoiz Urbiara bertako gazta dastatzera? Lanbide gogor bezain zahar honen lekuko dira Urbia eta Degurixako zelaietan dauden aztarna megalitikoak. Ez da gure asmoa lerro hauetan ingurune hauetako artzain eta artzaintzari buruzko azterketa etnografikoa egitea, baina, gaur egun, oraindik artzaintzak ingurune hauetako bizimoduan duen eragina azpimarratzekoa da. Bestetik, zenbait gunetako paisajea, aipaturiko Urbia eta Degurixa kasu, artzaintzak mendetan zehar baldintzatu eta moldaturikoa da, ezbairik gabe. Hori dela eta, jarduera ekonomiko honen etorkizunean berebiziko garrantzia izango du parkea egoki kudeatzeak. Beti ere, hainbeste aldiz aipatzen den eta benetan zer den inork gutxik dakien oreka jasangarri hori izango litzateke helburu nagusia.

Oreka hori ulertzeko sortzen diren eztabaida eta iritzi desberdinen lekukoak ere izango dira parke natural honetan. Izan ere, Elgeako mendikatean eraiki nahi den parke eolikoak iritzi kontrajarriak sortu ditu gizartearen eta lehen aipatu dugunez, ingurune hau Parkearen mugetan sartuko litzateke. Eztabaida plazan da jadanik, eta denborak erakutsiko du ingurune hauen babesa eta gure gizartearen garapena noraino uztar daitezkeen, ea beranduegi baino lehen ikasten dugun denok, oreka hori non dagoen. 

\* Biologoa

J. Larranaga



## SAN ADRIANGO GALTZADA

San Adriango kobatik irten orduko dagoen galtzada hori, Gipuzkoako bide historiko garrantzitsuena dela esan dezakegu. Mendetan zehar, Gaztelako lurak Frantzia, Alemania edo Herbehereekin lotzen zituen bide nagusia igarotzen zen bertatik.

Galtzada honetatik igarotzen ziren, halaber, Santiagorako bidean Sakanako lurak saihestu nahi zituzten erromesak. Izan ere, sakanako lurak arrakatsuak ziren, bertan bidelapur ugari izaten baitzen. Nolanahi ere, San Adriango inguru hauek ez ziren bidelapurretatik libre eta badira inguru hauetan lapurretekin loturiko hainbat kontu bitxi.

Gipuzkoa eta Arabako mugan, bidea bitan banatzen zen, bata, ezkererantz, Zalduondo eta Araiara joaten zen, eta bestea berriz, eskuinerantz Galarreta aldera.

Galtzada hau, erromatartzat hartu izan da askotan, baina adituek diotenez, gehienez ere XI. mendekoa izango litzateke, tunelaren barrualdean dagoen ermita eraiki zen garai berekoa hain justu.

Etorkizunean berebiziko garrantzia izango du parkea egoki kudeatzeak.

